



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko urtarrilaren 12a

1. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- 11-25/PES-00378. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan gabapentinoideak errezetatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00379. Galdera, A-15 autobia eta Medinaceli lotzeko egiteke dauden bi tarteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00380. Galdera, nekazaritzako plastikoen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00381. Galdera, gure erkidegoko dantzako heziketa ofizialari eta dantzako goi-mailako heziketa artistikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00382. Galdera, titulartasun publikoko haur-eskoletan bete gabe gelditu diren eskabideen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00383. Galdera, hondakinak zabortegian uztearen gaineko zerga dela-eta foru administrazioak bere gain hartutako kostu osoari edo inpaktu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00384. Galdera, Infanta Elena zentroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00385. Galdera, 2026an babes ofizialaren kalifikazioa galduko duten Iruñeko 169 etxebizitzetara buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00386. Galdera, gaixotasun arraroak edo desgaitasun konplexuak dauzkaten pertsonak artatze aldera Gobernuak abian jarritako neurri zehatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00387. Galdera, 2026-2027 ikasturterako eskola-mapa aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-25/PES-00388. Galdera, Virgen del Camino ikastetxe integratu politeknikoan kurtsoa errepikatu behar duten ikasleen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-25/PES-00389. Galdera, palko instituzionalak erabiltzeko irizpideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-25/PES-00390. Galdera, eskola itunduko ratioa egokitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- 11-25/PES-00391. Galdera, Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren zirriborroaren ibilbide instituzionalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-25/PES-00392. Galdera, 2020ko urtarrilean despulatze-arriskuan zeuden herriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00393. Galdera, BAI programako graduondoa egiteko jasotako eskabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00394. Galdera, izapidetzea bertan behera uzteak ukitutako biometanizazio-proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00395. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako 2025-2028 Plan Estrategikoko ekintzak burutzeko epeak ezartzen dituen kronogramarik ote dagoen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

**F saila:**  
**GALDERAK**

## 11-25/PES-00378. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan gabapentinoideak errezetatzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan gabapentinoideak errezetatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak galdera egin du gabapentinoideen (Lyrica)

kontsumoari buruz (11-25-PEI-00378), idatziz erantzun dakion. Bada, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak informazio hau ematen du horri buruz:

Gabapentinoideen (Lyrica...) preskripzioak zer bilakaera izan du urtez urte NOZ-Osasunbidean, azterketa egin zen urtetik (2020) gaur arte, bai oinarrizko osasun-laguntzan, bai espezializatuan?

Gabapentinoideen erabileraren bilakaera azaltzeko kalkulu orria xehatzen da, farmazia bulegoetan errezetak emateari buruzko datuetan oinarrituta. Egunean zehaztutako dosi kopurua eta tratatutako paziente kopurua neurtzen dira.

Zehaztutako eguneko dosia Osasunaren Mundu Erakundeak ezarritako medikamentuen kontsumoa neurtzeko eta alderatzeko unitate tekniko bat da.

Nº DDD			Año						
Subgrupo5 Desc (Dim_Grupo_Ambito)	Subgrupo7 Desc (Dim_Grupo_Terapeutico)		2020	2021	2022	2023	2024	2025 (ene-sep)	
N02BF - GABAPENTINOIDES	AE	N02BF01 - GABAPENTINA	53.207	61.588	61.398	65.692	57.813	43.595	
		N02BF02 - PREGABALINA	141.064	159.736	183.171	183.617	183.680	145.278	
	Total AE		194.271	221.324	244.569	249.309	241.493	188.873	
	AP	N02BF01 - GABAPENTINA	383.297	382.591	395.811	412.261	433.396	324.721	
		N02BF02 - PREGABALINA	963.341	1.029.039	1.099.411	1.188.326	1.296.570	1.035.812	
	Total AP		1.346.638	1.411.630	1.495.222	1.600.587	1.729.966	1.360.533	
<b>Total N02BF - GABAPENTINOIDES</b>			<b>1.540.909</b>	<b>1.632.954</b>	<b>1.739.791</b>	<b>1.849.896</b>	<b>1.971.459</b>	<b>1.549.406</b>	
DDD: dosis diarias definidas									
Nº pacientes distintos			Año						
Subgrupo5 Desc (Dim_Grupo_Ambito)	Subgrupo7 Desc (Dim_Grupo_Terapeutico)		2020	2021	2022	2023	2024	2025 (ene-sep)	
N02BF - GABAPENTINOIDES	AE	N02BF01 - GABAPENTINA	1.391	1.533	1.640	1.820	1.641	1.245	
		N02BF02 - PREGABALINA	2.700	3.245	3.731	3.992	3.816	3.250	
	Total AE		<b>4.017</b>	<b>4.683</b>	<b>5.265</b>	<b>5.688</b>	<b>5.357</b>	<b>4.428</b>	
	AP	N02BF01 - GABAPENTINA	4.546	4.735	5.019	5.474	5.624	5.062	
		N02BF02 - PREGABALINA	10.023	11.211	12.642	13.679	14.756	13.964	
	Total AP		<b>14.339</b>	<b>15.592</b>	<b>17.318</b>	<b>18.708</b>	<b>19.949</b>	<b>18.691</b>	
<b>Total</b>			<b>16.348</b>	<b>18.027</b>	<b>19.920</b>	<b>21.420</b>	<b>22.368</b>	<b>20.837</b>	
Si un paciente recibe recetas tanto de AE como de AP o de gabapentina y pregabalina sólo cuenta una vez									
Importe			Año						
Subgrupo5 Desc (Dim_Grupo_Ambito)	Subgrupo7 Desc (Dim_Grupo_Terapeutico)		2020	2021	2022	2023	2024	2025 (ene-sep)	
N02BF - GABAPENTINOIDES	AE	N02BF01 - GABAPENTINA	32.738,26 €	37.895,48 €	37.779,68 €	40.423,19 €	35.574,89 €	26.824,31 €	
		N02BF02 - PREGABALINA	148.195,73 €	167.813,08 €	192.431,58 €	192.899,22 €	192.963,22 €	152.616,38 €	
	Total AE		180.933,99 €	205.708,56 €	230.211,26 €	233.322,41 €	228.538,11 €	179.440,69 €	
	AP	N02BF01 - GABAPENTINA	235.824,17 €	235.391,29 €	243.527,87 €	253.655,08 €	266.660,40 €	199.794,18 €	
		N02BF02 - PREGABALINA	1.012.051,76 €	1.081.048,62 €	1.154.970,51 €	1.248.363,32 €	1.362.065,98 €	1.088.116,85 €	
	Total AP		1.247.875,93 €	1.316.439,91 €	1.398.498,38 €	1.502.018,40 €	1.628.726,38 €	1.287.911,03 €	
<b>Total N02BF - GABAPENTINOIDES</b>			<b>1.428.809,92 €</b>	<b>1.522.148,47 €</b>	<b>1.628.709,64 €</b>	<b>1.735.340,81 €</b>	<b>1.857.264,49 €</b>	<b>1.467.351,72 €</b>	
El importe incluye tanto lo aportado por el SNS-O como por el paciente.									
AE: Atención Especializada									
AP: Atención Primaria									

Zer kostu ekonomiko izan du urtez urte gabapentinoideen (Lyrica...) erabilerak 2020tik gaur arte, bai oinarrizko osasun-laguntzan, bai espezializatuan?

Erantsitako kalkulu orrian zenbatekoaren bila-kaera islatzen da, pazientearen ekarpena barne hartuta (gabapentinoideen kontsumoa, laburtuta).

Gabapentinoideak ez dira eraginkorrak fibromialgia, migraina, lunbalgia, dardara esentziala, ebakuntza osteko oinazea eta menopausia osteko beroaldiak tratatzeko, eta, beraz, ez da gomendatzen horiek erabiltzea. Nola kontrolatzen da NOZ-Osasunbideak aholkatutako preskripzioa, eta gabapentinoideak (Lyrica...) gomendatutako erabilerarako ez erabiltzeagatik jakinarazpenik egin al zaie profesionaleri edo diziplinazko espedienterik abiarazi al da? Medikuntzako zenbat profesionali egin zaio halakorik urte bakoitzean?

Ez da optimizazio estrategiarik garatu historia klinikoan. Pixkanaka erretiratu beharreko sendagaiak direnez, ezin da bat-batean eteteko proposamenik egin.

Lehen mailako arretako farmazialariek paziente polimedikatuen medikazioa berrikusten dutenean, preskripzioa kentzea gomendatzen da. Mezu eredu hauek ezarri dira:

Gabapentinoideak oinazean: pregabalina eta gabapentina eraginkorrak izan litezke plazeboarekin alderatuta, lehen mailako tratamendu gisa, oinaze neuropatiko tratatzeko, neuralgia posherpetikoa eta neuropatia periferiko diabetikoa duten pertsona batzuen kasuan behintzat:

100 pertsonatik 41ek vs 100 pertsonatik 15ek neuralgia posherpetiko neurritzko eta larrian, edo 100 pertsonatik 41ek vs 100 pertsonatik 28k neuropatia periferiko diabetikoa duten pazienteen kasuan, oinazea % 50 arinduko litzateke, gutxienez, pregabalina 600 mg/egunean hartuz gero, hasierako titulazioa vs plazeboaren ondorengo  $\geq 8$  asteetan.

100 pertsonatik 31k vs 100 pertsonatik 17k neuralgia posherpetiko neurritzko eta larrian, edo 100 pertsonatik 38k vs 100 pertsonatik 21ek neuropatia periferiko diabetikoa duten pazienteen kasuan, oinazea % 50 arinduko litzateke, gutxienez, pregabalina  $\geq 1.200$  mg/egunean hartuz gero, hasierako titulazioa vs plazeboaren ondorengo  $\geq 8$  asteetan.

Fibromialgiaren kasuetan gabapentinaren eraginkortasuna ez dago argi eta garbi frogatuta, eta ez dira eraginkorrak gerrialdeko oinazerako, ziatikarako, bizkarrezurreko estenosirako edo migraina episodikorako, eta ez da gomendagarria fitza teknikitik kanpo erabiltzea gaitz horiek tratatzeko.

<https://www.bmj.com/content/369/bmj.m1315>

Pazienteei jakinarazi egin behar zaizkie bigarren mailako ondorioak, hala nola zorabioak, logura eta ibiltzeko arazoak, sendagaien dosia murriztu edo eten behar izatea eskatzen dutenak zenbait kasutan.

FDAk ohartarazi egin zuen, 2020ko urtarrilean, gabapentinoideei eta arnas depresio larriari buruz, opioideekin, nerbio sistema zentralerako beste depresore batzuetan funtsatutako tratamendua duten pazienteen artean eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoko kasuetan.

<https://www.fda.gov/safety/medical-product-safety-information/neurontin-gralise-horizont-gabapentin-and-lyrica-lyrica-cr-pregabalin-drug-safety-communication>

Gabapentina: ez dago gomendatuta antsietatea tratatzeko. Pregabalinarekin probatzen ahal da, antsietate orokorrerako gomendagarria den gabapentinoidea izanik. Kontuan izan behar dira gabapentinoideekin lotutako arriskuak, hala nola zorabioa, ataxia, pisua hartzea, edema periferikoa, batez ere paziente ahulen, adindunen eta giltzurrun gutxiegitasuna edota gaixotasun kardio-baskularra dutenen kasuan.

Alabaina, gabapentinarekin jarraitzea erabakiz gero, dosia doitu behar da, pazientearen giltzurrun gutxiegitasuna dela eta. Kasu honetan, 20 ml/min-ko glomerulu iragazketarekin, eguneko gehieneko dosia 600 miligramokoa da.

[https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/889229E-F-448A-4664-A78F-ED640B16035B/476679/Bit\\_v29n4.pdf](https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/889229E-F-448A-4664-A78F-ED640B16035B/476679/Bit_v29n4.pdf)

Nafarroako Ospitale Unibertsitariotik (NOU) eta Zentroko Zerbitzuekin kontsultatu ondoren, jakinarazten dugu gabapentinoideak batez ere hainbat jatorritako oinaze neuropatikoetarako gomendioetan erabiltzen direla, batez ere patologia metabolikoarekin, infekzio ostekoarekin edo traumatikoarekin lotutakoetarako. Gehien erabiltzen diren zerbitzuen artean, hauek dira gomendio nagusiak:

– Barne-medikuntzan oinaze neuropatikoetarako erabiltzen dira. Gure paziente gehienek lehen mailako arretatik (neuropatia diabetikoa dela eta) edota oinazearen unitatetik (oinaze neuropatikoak direla eta) jarraitzen dute tratamendua.

– Oinazea Tratatze Unitatea: gabapentinoideak (gabapentina, pregabalina) oinaze neuropatiko kronikorako gomendatzen dira. Preskripzioa kentzeko, Lehen Mailako Arretara jo behar da (baliteke jarraipena egin behar izatea).

– Psikiatria: unean uneko kasuetara mugatzen da erabilera, eta kasu oso zehatzetan, gainera, hala nola antsietate orokorra tratatzeko bentzodiazepinen alternatiba gisa edota bentzodiazepina gabeziako kasuetan. Baita hartutako kalte zerebrala duten pazienteen afektibitate edo portaera alterazioen kasu batzuetan ere.

– Neurologia: oinaze neuropatikoetan gomendatzen dira: postherpetikoetan, konpresiozko erradikulopatiatan –edo beste kausaren batekoetan– eta bestelako oinaze neuropatiko batzuetan.

– Endokrinologia: soilik neuropatia diabetikoa-gatiko oinazean gomendatzen da.

– Neurokirurgia: pregabalina dosi baxuetan erabili ohi dute (batzuetan gabapentina ere bai) fibromialgia eta neuropatiak tratatzeko. Ez da izan desohitzea beharrezkoa izan den ezein kasuren berri; paziente gehienek gaizki jasaten dute eta eten egin behar izan ohi da.

– Obstetria eta Ginekologia Zerbitzutik adierazi digute ez direla patologia propioetan erabili ohi.

Ez dago gomendatzeko/erabiltzeko/kentzeko protokolo zehatzik.

"Peripheral Neuropathy, a review" (Michelle L. Mauermann, MD; Nathan P. Staff, MD, PhD) izeneko duela gutxiko argitalpenean –horietarako gomendioei buruzkoan– NOUNOko zerbitzuetan ematen zaion erabilerarekin bat datozen gomendioak ematen dira.

"Egin al zaie jakinarazpenik profesionali edo diziplinazko espedientei eta, egitekotan, medikuntzako zenbat profesionali egin zaizkie urtero?" galderaren puntu honi dagokionez,

Osasun Mentaleko Kudeatzaitzak hau erantzuten du:

- Gabapentinoideak (Lyrica) emateagatik ez zaio inolako diziplinazko espedienterik izapidetu ezein medikuri.

Lizarrako Osasun Barrutiko Kudeatzaitzak hau erantzuten du:

- Banakako jakinarazpenak egiten dira paziente jakin baten tratamendua berrikusi eta baimendutako gomendioetatik kanpo erabiltzen ari dela detektatzen dugunean, baina ez dugu modurik jakinarazpen horiek kuantifikatzeko. Ez da ezein estrategia globalik egin horrekin lotuta.

Zenbat pertsonak parte hartu dute gabapentinoideen (Lyrica...) preskripzioa kentzeko eta desohitzeko prozesuetan Nafarroan 2022tik?

Ez daukagu datu hori. Egitekotan, medikuen ohiko jardun klinikoaren barnean izanen zen.

Bidaiderik gabeko haur eta nerabe migra-tzaileen artean, gizarte-erakundeek gabapentinoideen (Lyrica...) kontsumo handia detektatu dute. Taxutu al da programarik pertsona horiek horien kontsumotik (adikzioa) desohitzeko?

Osasun Mentaletik honako hau jakinarazi da:

Ez dago gai horri heltzeko programa espezifikorik, errezeta elektronikokoaren bidezko preskripzioaren kontrolaz, denborak mugatutako preskripzioaz eta eskura dagoen dosi txikienez haraindi. Preskribatzen duten profesional guztien ataza da hori, hain zuzen.

Izan ere, Lyricaren (eta Rivotrilan) erabilera okerra eta gehiegizkoa gero eta ohikoagoa da, eta arazo handiagoak sortzen dizkie bai kontsumitzen duten biztanleei, bai preskribatzen dituzten profesionali (preskribatzeko presioa, intimidazioa, agresibitate gertakariak, etab.).

Osasun Mentaleko zerbitzuek nerabeen portaera nahasmendua tratatzeko pregabalina (Lyrica) erabiltzeko irizpidea funtsatuta dago antsietate orokorra eta jokabide alterazioak kontrolatzeko onartutako gomendio batean, bentzodiazepinen abusua eta mendekotasuna saihestuta betiere. Alabaina, okerreko erabilera ere eragin izan du. Sendagai horren trafikoa oso handia da kalean, baita espetxeratutako pertsonen artean ere.

Egia esan, ez dago adingabeengan onartutako alternatiba farmakologikorik, seguruagoak direnik eta mendekotasunik (eta trafikorik) sortzen ez dutenik. Bestalde, farmako horien erabilerak bigarren mailakoa izan behar du pertsonen ingurune naturalean bestelako jokabide eta hezkuntza arloko esku-hartzeen aurrean, planteatzen zaigun kasuan esku-hartze egokiena izanik.

Zalantzarik gabe, osasunaren prebentzio eta sustapen neurriak dira esku-hartzearen lehen lerroa, farmako horien eskuragarritasuna kontrolatzeaz gainera.

Substantzien heltze orokorrerako zirkuitu zehatz bat dago, kontsumoaren larritasunaren arabera mailakako esku-hartzea dakarrena berekin. Horrela, lehenetik eta behin, lehen mailako arreta zerbitzuek ebaluatu egin beharko lituzkete egoera klinikoa eta larritasuna, bai eta balizko ondorio funtzionalak ere. Gaur egun baliabide psikologikoak dituzte balorazio zehatzagoa egiteko. Kontsumo larritasun handiagoa eta patologia psikiatriko erantsia dagoenean, osasun mentaleko zentroetara (OMZ) deribatzea da

gomendioa. Osasun mentaleko zentroak funts-funtsezko maila horretan ebaluatu eta esku hartu behar du. Gizakia Helburu elkartearen Suspertu programara bideratzeko aukera dago, adingabeentzako plazen gaineko itun bat egonik harekin.

Konplikazioak handiagoak direnean eta aldi berean nahasmendu mentalekiko komorbilitatea dagoenean, ospitaleratze partzialeko baliabideak (Zuria Eguneko Ospitalea) behar dira, are

ospitaleratze osoko akutuen unitateak kasurik larrienean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-25/PES-00379. Galdera, A-15 autobia eta Medinaceli lotzeko egiteke dauden bi tarteei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak A-15 autobia eta Medinaceli lotzeko egiteke dauden bi tarteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak galdera egin du A-15 errepidea eta Medinaceli lotzeko exekutatzeko dauden Nafarroako bi tarteen egoerari buruz (11-25/PES-00379), idatziz erantzun dakion. Bada, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak informazio hau ematen du horri buruz:

Zein egoeratan daude A-15 errepidea eta Medinaceli lotzeko egiteke dauden Nafarroako bi tarteeak?

Lehen zatia, Cintruénigotik AP-15 autobidearekiko konexiorainoko bidea jasotzen duena, behin betiko onesteko bidean dago.

Bigarren zatiari dagokionez, berriz, proiektua idazketa prozesuan dago.

Zer epe aurreikusten dituzue proiektua gauzatzeko?

2026ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuak A-15 errepideko lehen lanak datorren urtean hasiko direla aurreikusten du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 18an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## 11-25/PES-00380. Galdera, nekazaritzako plastikoen kudeaketari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak nekazaritzako plastikoen kudeaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-25/PES-00380 idatzizko galdera egin zuen nekazaritzako plastikoen kudeaketari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak hau jakinarazten du:

Nafarroan zer aukera dago nekazaritzako plastikoak biltegiatzeko eta birziklatzeko?

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 22. artikuluan ezartzen denez, hondakinen hasierako ekoizlea edo hondakinen beste edukizaille bat behartuta dago bere hondakinen tratamendu egokia ziurtatzera, giza osasuna eta ingurumena babesteari eta hondakinen hierarkiari buruzko printzipioei jarraikiz. Horretarako, aukera hauek ditu:

a) Hondakinak bere kabuz tratatzea, betiere tratamendu eragiketa egiteko dagokion baimena bada.

b) Bere hondakinen tratamendua negoziatzaile erregistratu bati edo tratamendu eragiketak egiten dituen hondakin kudeatzaile baimendu bati enkargatzea.

c) Hondakinak biltzeko erakunde publiko edo pribatu bati entregatzea hondakinak (gizarte ekonomia erakundeak barne hartuta), hark tratatzen, baldin eta lege honetan ezarritakoaren arabera erregistratuta badaude.

Hondakin mota horiek edo beste edozein kudeatzeko baimena duten kudeatzaileak Nafarroako Hondakinen Sortzaileen eta Kudeatzaileen Erregistroan daude. Erregistro hori helbide honetan dago kontsultagai: <https://extra.navarra.es/InformacionPublicaPRTR/RPGR.html#/PGR>

Zer neurri espezifiko ezartzea aurreikusten du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak nekazaritzako plastikoak behar bezala birziklatzeko?

Jada adierazi den bezala, hondakin hau behar bezala kudeatzeko erantzukizuna hondakinen sortzaileari edo edukizailleari dagokio. Ingurumen Zuzendaritza Nagusia nekazaritzako plastikoen birziklatze egokian aurrera egiteko neurriak lantzen ari da, arazo hori –jada ezagutzen duguna– konpontzeko asmoz eta plastiko biodegradagarrien erabilera sustatuta.

Departamentuak –eta, zehazki, Ekonomia Zirkularraren Zerbitzuak– nekazaritzako sindikatuekin, nekazaritza kooperatibekin eta inplikaturako gainerako eragileekin lankidetzan aritzeko prestasuna erakusten du, irtenbide koordinatu bat bilatzeko asmoz. Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluko hierarkia aplikatuz eta hondakinen balorizazioari ezabapenari baino garrantzi handiagoa emanez.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## **11-25/PES-00381. Galdera, gure erkidegoko dantzako heziketa ofizialari eta dantzako goi-mailako heziketa artistikoari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak gure erkidegoko dantzako heziketa ofizialari eta dantzako goi-mailako heziketa artistikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00381 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuaren egungo prestakuntza eskaintzaren plangintzan ez dago aurreikusita dantzako arte irakaskuntzak –nola profesionalak hala goi mailakoak– txertatzea.

Iruñean, 2025ko azaroaren 17an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

---

## **11-25/PES-00382. Galdera, titulartasun publikoko haur-eskoletan bete gabe gelditu diren eskabideen kopuruari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak titulartasun publikoko haur-eskoletan bete gabe gelditu diren eskabideen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00382 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Gaur egun, 350 dira 2025-2026 ikasturterako Haur Hezkuntzako lehen ziklorako onarpen epe arruntean aurkeztutako baina titulartasun publikoko haur eskoletako ezeinetan onartu gabeko eskabideak.

Eskura dugun informazioarekin ezin da ondorioztatu familia horiek plaza eskatu behar izan ote duten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatuetan.

Iruñean, 2025ko azaroaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-25/PES-00383. Galdera, hondakinak zabortegian uztearen gaineko zerga dela-eta foru administrazioak bere gain hartutako kostu osoari edo inpaktu ekonomikoari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, hondakinak zabortegian uztearen gaineko zerga dela-eta foru administrazioak bere gain hartutako kostu osoari edo inpaktu ekonomikoari buruzkoa, 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00383 idatzizko galdera egin zuen, hondakinak zabortegietan uztearen gaineko zerga dela eta Foru Administrazioak bere gain hartutako kostu osoaren edo eragin ekonomikoari buruz. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Iruñerriko Ingurumen Zentroan tratatu eta kudeatu gabeko hondakin frakzio ezabatuaren ondorioz aplikatutako isurketa zerga jaso da beheko taulan.

	2023	2024	2025*
<b>JASOTAKO HONDAKIN FRAKZIOA</b>	<b>62.863</b>	<b>64.031</b>	<b>58.500</b>
<b>Zerga aplikatzeko HONDAKINEN tonak</b>	<b>62.863</b>	<b>64.031</b>	<b>58.500</b>
Aplikatutako isurketa zerga, eurotan	2.514.507	2.561.233	2.340.000
Isurketara joanen lirakeen HONDAKINEN tratamenduaren ERREFUS tonak	35.845	35.492	32.427
Isurketa zerga, HONDAKINEN ERREFUSari aplikatua, eurotan	1.045.345	1.064.770	972.798
<b>Aldea:</b>			
Saihestuko lirakeen isuritako tonak	28.018	28.538	26.073
Isurketa zerga, ez tratatzeagatik aplikatua, eurotan	1.469.163	1.496.463	1.367.202

\*Estimaturik

Kalkulua egiteko, balio hauek hartu dira kontuan:

– Bildutako hondakinaren frakzioa frakzio haren guztizkoa da urte bakoitzerako.

– Isurketa zerga kalkulatzeko, tona metriko bakoitzeko 40 euroko kuota erabili da, zuzeneko isurketako udal hondakinak baitira, 14/2018 Foru Legearen 37. artikulua araberakoa (2023ko urtarrilaren 1etik aplikatu behar da).

– Proiektuaren datuen arabera lortutako % 55eko errefus ehunekoa hartu da kontuan.

– Hondakinaren errefusari aplikatutako isurketaren gaineko zerga kalkulatzeko, 30 euroko kuota erabili da, arestian adierazitako artikulua aplikatuz.

– Nola tonak hala tratamendua ez egiteagatik aplikatutako isurketa zerga aurreko datuen kendura dira.

– 2025ean jasotako errefusaren frakzioaren datua estimazio hutsa da.

– 2026ari dagokionez, otsail-martxo inguruan martxan jartzen hastea aurreikusten da. Gaur egun, ezin da egin tratatutako den frakzio zatiaren estimaziorik, abiaraztearen arabera izanen baita hori.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

**11-25/PES-00384. Galdera, Infanta Elena zentroari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Infanta Elena zentroari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Maite Nosti Izquierdo andreak 11-25/PES-00384 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak honako hau erantzun du:

1. Desgaitasun fisiko larria duten pertsonen arreta emateko diseinatu zen Infanta Elena Zentroa. Hori dela eta, logela guztiak irisgarriak izan dira hasiera-hasieratik; den-denek komun irisgarria dute eta errei garabidunen bidez komunikatuta daude, mugikortasun urriko pertsonen egokitatea egonik hori guztia.

2. Kontratuaren zenbateko osoa, egindako aldatketekin, 30.265.760,70 eurokoa da (BEZa barne hartuta). Urteko zenbatekoa handitu egiten da urteek aurrera egin ahala, pertsonal-gastuen areagotzearen eraginez eta kostuen igoera aurreikusten delako. 2025erako kalkulaturako zenbatekoa 6.098.450,40 eurokoa da (BEZa barne). Lizitatutako azken kontratuak bizileku plazen kudeaketa baino ez zuen jasotzen, eta kendu egiten zituen aurreko eguneko egonaldiak.

2025erako kalkulaturako pertsonal-kostua 5.191.003,90 eurokoa da, eta instalazioen mantentze-lanena eta baldintza agiritan eskatutako inbertsioena, berriz, 87.000 eurokoa. Azken horiek dira kontratuan sartutako kostuak. Programen kostuak zerbitzuaren kostuan inplizituki barne hartuta daude, baldintza-agirian eskatutakoak diren heinean.

3. Kontratuan eskatutako profesionalen dagokien, honako hauek dira:

a. Fisioterapia: 2 profesional lanaldi osoan.

b. Terapia okupazionala: profesional 1 lanaldi osoan.

c. Logopedia: profesional 1 lanaldiaren % 65ean.

d. Erizaintza: 10.452 ordu urteko.

e. Gizarte lana: profesional 1 lanaldi osoan.

f. Zaintzako edo zuzeneko arretako langileak: 90.778 ordu urtean.

g. Langileen ratioari dagokionez, zuzeneko arretako langileak (zaintzaileak) bakarrik kontuan hartuz gero, ratioa 0,83koa da, eta teknikarien ratioa (medikuntza, psikologia, terapia okupazionala, logopedia, fisioterapia, erizaintza, aisia eta denbora libre eta gizarte lana), berriz, 0,24koa. Langileen ratio orokorra (zerbitzu orokorretako langileak izan ezik) 1,08 da.

4. Egindako ikuskapenak PEI-00947ren bitartez helarazi zaizkio eskatzaileari, bai eta akta eta txosten bakoitzean ageri diren gomendioak ere.

5. CAIDIS Infanta Elena zentroan ematen diren fisioterapiako, terapia okupazionalako eta logopediako zerbitzuak lizitazioeko plegu teknikoan jasota daude. Plegu hori eskatzaileari bidali zitzaion PEI-00947n, jada aipaturako profesionalekin batera. Guk dakigula, terapia horiek ez dira eten azken urteetan. Jakinarazi behar da CAIDIS Infanta Elena ez dela errehabilitaziorako ezein osasun zentro, desgaitasun fisiko larria duten pertsonentzako egoitza bat baizik, non terapiak mantentze funtzionalera zuzenduta dauden, ahal den neurrian; hala, laguntza premia handiak dituzten pertsonen eman egiten zaizkie beren bizi proiektua beren nahien eta lehen-tasunen arabera eratzten jarraitzeko etxe baten antzeko bizi kondizioak.

6. PEI-00947ri emandako erantzunean, Excel bat eman zen, guneen mantentze lanekin, berritze lanekin edo hobekuntza lanekin egindako jarduketak guztiak biltzen zituena. Epe laburrerako aurreikusitakoak eta gaur egun exekutatzen ari direnak ere bai, hala nola kanpo zoladura jartzea, kanpoko eguzkitakoak ipintzea eta kanpoko elementuak eta barandak margotzea. Ez dago beste inbertsiorik aurreikusita epe laburrera.

7. Azkenik, kalitate eta gogobetetze adierazleei dagokienez, zentroak jarduera adierazleak biltzen dituen memoria bat aurkeztu du urtero, eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak berrikusi egiten ditu adierazle horiek. Halaber, urtero egiten da kontratua-

ren jarraipen batzorde bat, eta batzorde hartan parte hartzen dute erabiltzaileek, senideek, profesionalak, erakunde kudeatzaileko arduradunek eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako ordezkariak.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-25/PES-00385. Galdera, 2026an babes ofizialaren kalifikazioa galduko duten Iruñeko 169 etxebizitzetarako buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 2026an babes ofizialaren kalifikazioa galduko duten Iruñeko 169 etxebizitzetarako buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-000385 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Zein da 169 etxebizitza horien kokapena, ematen ahal den helbiderik zehatzena?

Kontsultaren xede diren 169 etxebizitzak behean adierazitako espedienteetara dagozkien, ondoren adierazten diren helbide eta xehetasunekin:

Espedientea	Sustatzailea	Helbidea
31/1-0001/94	LEYRE TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK SL	Leyre 17 eta 19 Iruña
31/1-0002/94	GESTIÓN ASISTENCIAL SA	Ermitagaña, 9 Iruña
1/31-94/0003	GESTIÓN ASISTENCIAL SA	Irunlarrea 10 Iruña

169 etxebizitza horietatik, zenbat eta zeintzuk dira alokairu araubidekoak eta zenbat eta zeintzuk dira erosketara araubidekoak?

Etxebizitza guztiak alokairu erregimenari dagozkio (tutoretzapeko apartamentuak).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 18an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## **11-25/PES-00386. Galdera, gaixotasun arraroak edo desgaitasun konplexuak dauzkaten pertsonak artatze aldera Gobernuak abian jarritako neurri zehatzei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak gaixotasun arraroak edo desgaitasun konplexuak dauzkaten pertsonak artatze aldera Gobernuak abian jarritako neurri zehatzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urriaren 31ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Maite Nosti Izquierdo andreak 11-25/PES-00386 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak honako hau erantzun du:

Eskubide Sozialetako, Gizarte Ekonomiako eta Enpleguko Departamentutik, eta, zehazki, Nafarroako Autonomia eta Garapenerako Agentziatik (mendekotasuna eta desgaitasuna aitortuta duten pertsonen laguntzak emateko eskumena du erakunde horrek), garatutako ekintza ildoek ez dute kontuan hartzen diagnostiko baten espezifikotasuna, baizik eta halako pertsonen behar dituzten laguntzak zernolakoak eta zenbaterainokoak diren, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasota dagoen bezala. Eredu honetako ekintza ildoak 2019-2025eko Nafarroako Desgaitasun Planean daude jasota.

Gaur egunean, estrategia soziosanitario bat lantzen ari gara Osasun Departamentuarekin, herritarrei zainketen jarraitutasuna eta horiek behar dituzten laguntzak eskaintzea ahalbidetuko dieten oinarriko ekintza ildoak jasoko dituen estrategia bat, hain justu ere, diagnostikoan oinarrituta egoteaz gainera, haien beharrezanetan, nahietan eta lehentasunetan pentsatuta ere egonen dena (bereziki, horietan), kontuan hartzen dugun pertsonarengan oinarritutako arreta ereduaren arabera; izan ere, iraupen luzeko zainketa eredu gidatu behar du.

Alboko esklerosi amiotrofikoa eta konplexutasun handiko beste gaixotasun edo prozesu itzulezin batzuk dituzten gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko urriaren 30eko 3/2024 Legearen aplikazioa lantzen ari da.

Gainera, arreta goiztiarreko zerbitzutik arreta eskaintzen da. Zuzenean eta koordinatuta lan egiten da departamentu arteko batzorde batean, Osasun Departamentuak, Hezkuntza Departamentuak eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak osatua, zainketen jarraitutasuna bermatuta horrela.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 20an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-25/PES-00387. Galdera, 2026-2027 ikasturterako eskola-mapa aldatzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak 2026-2027 ikasturterako eskola-mapa aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 7ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00387 galdera idatzari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

2026-2027 ikasturterako eskola mapa aldatzeko eskaera finkatuak taula honetan jaso dira:

Zentroa	Eskaera
Barasoaingo HLHIP	Eskualdekotzea
Almandozko HLHIP	Basaburuko kuartela atxikitzea (Berroeta, Aniz eta Ziga)
Faltzesko HLHIP	D eredia irekitzea
Antzingo HLHIP	Metauten Antzingo HLHIPari atxikitzea
Erriberriko HLHIP	Erriberriko DBH 1 eta 2, D eredia. Ez da beharrezkoa eskola mapa aldatzea. Beharrezkoak dira plangintzari eta espazioei buruzko txostenak
Azkoiengo BHI	D eredia ezartzea Azkoiengo BHI. Azkoiengo HLHIPko D ereduko ikasleak LH 6n daude jada. Eskola mapa aldatu egin behar da. Gaur egun, Azkoiengo HLHIP Tafallako BHIri atxikita dago.

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

## 11-25/PES-00388. Galdera, Virgen del Camino ikastetxe integratu politeknikoan kurtsoa errepikatu behar duten ikasleen egoerari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Virgen del Camino ikastetxe integratu politeknikoan kurtsoa errepikatu behar duten ikasleen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 7ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00388 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

EDUCAren datu-basean agertzen denez, 2025-2026 ikasturtean Virgen del Camino LHIn Lantokiko Prestakuntzako modulua errepikatu eta ikasi behar duten ikasleak honako taula honetan agertzen dira:

	Etapa	Curso	Asignaturas	2025-2026
CIP Pam. Virgen Camino	FP GM	2-GM Electromecánica de vehículos automóviles (Cualif)	Formación en centros de trabajo	13
		2-GM Instalaciones de producción de calor (Cualif.)	Formación en centros de trabajo	14
		2-GM Instalaciones eléctricas y automáticas (Cualif)	Formación en centros de trabajo	11
		2-GM Instalaciones frigoríficas y de climatización (Cualif.)	Formación en centros de trabajo	12
		2-GM Mecanizado (Cualif)	Formación en centros de trabajo	10
		2-GM Soldadura y calderería (Cualif)	Formación en centros de trabajo	4
	FP GS	2-GS Construcciones metálicas (Cualif)	Formación en centros de trabajo	4
		2-GS Mecatrónica industrial (Cualif)	Formación en centros de trabajo	27
		2-GS Programación de la producción en fabricación mecánica (Dual)	Formación en centros de trabajo	3
		2-GS Proyectos de edificación (Cualif)	Formación en centros de trabajo	2
		2-GS Sistemas electrotécnicos y automatizados (Cualif)	Formación en centros de trabajo	15

115 ikasle horietako 39ri Lantokiko Prestakuntzako modulua baino ez zaie geratzen egiteke, eta, hala badagokio, proiektu modulua.

Ikastetxeak 2026-2027 ikasturterako aplikatutako plantillak egiteko ezarritako irizpideei dagokien ordu-kopurua jaso du, bere prestakuntza eskaintzaren ezaugarrien eta hedaduraren arabera, Nafarroako hezkuntza sistemako gainerako ikastetxe publikoen kasuan bezalaxe. Esleitutako zuzkidurarekin, ikastetxeko zuzendaritza taldeari dagokio, bere kudeaketa autonomiaren esparruan betiere, eskura dituen baliabide pertsonalak antolatu eta

banatzeko zeregina, beharrezanean erantzuteko egokitzat jotako irizpideei jarraikiz, gure hezkuntza sistemako gainerako ikastetxe publikoek egiten duten bezalaxe.

Hain zuzen ere, ikasturte hasierako jarraibideetan proposatu egiten dira beharrezan horiei erantzuteko neurriak eta eskuragarri dauden baliabideen erabilera posiblea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

## 11-25/PES-00389. Galdera, palko instituzionalak erabiltzeko irizpideari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak palko instituzionalak erabiltzeko irizpideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 7ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

PPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak 11-25/PES-00389 idatzizko galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroa Arenako Palkoko 11 besaukien erabileraren eta Baluarte Areto Nagusiko 8 besaukiena Nafarroako Gobernuaren, Foru Komunitateko beste erakunde batzuen eta erkidegoetako gobernu autonomikoetatik eta udal gobernuetatik jasotako konpromisoen eskura daude (normalki, autonomia erkidego mugakideetakoak dira gobernu horiek).

Gonbidapenak ez dira pertsonalatuak, eta, horregatik, ezin da jakin agintaria azkenean ez ote den bertaratu, adibidez, agenda aldaketa bat izan duelako, ez eta berarekin doan pertsona edo pertsonak nor diren ere.

Gainera, bi arazo gogorarazi behar dira. Lehenengo arazoak ekitaldiaren izaerarekin du zerikusia, hau da, alokairukoa ote den; izan ere, lehenengo kasuan palkoak ekitaldiaren sustapenarekin lotutako pertsonak ere hartzen ditu. Eta, bigarren arazoari gagozkiola, gai horri buruz jasotako informazio eskaeretan eta idatzizko galderetan erantzunez joan den bezala, gogorarazten da Nafarroako Gobernuak Baluarte Areto Nagusian dituen 8 besaukietarako eskabiderik ez dagoenean ikus-entzule orokorrentzat salgai jartzen direla; hori ezinezkoa da Nafarroa Arenan, palkoa Iruñeko Udalarekin eta Miguel Indurain Fundazioarekin partekatzen baita.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## 11-25/PES-00390. Galdera, eskola itunduko ratioa egokitzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak eskola itunduko ratioa egokitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 7ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00390 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Itunpeko eskolan ratioa ekitatezko banaketa-irizpideen arabera egokitzen jarraitu nahi da, honako honi jarraikiz betiere: apirilaren 28ko 33/2021 Foru Dekretuak –Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituenak– 36. artikuluko 4. puntuan ezartzen duenez, zentro bako-

tzeko hezkuntza-laguntzako beharrian espezifikoa dituzten ikasleen eskolatzeko indizea kontuan hartuta, Hezkuntza Departamentuak, hala badagokio, dagokion irakaskuntza mailarako orokorrean aurreikusitakoak baino ratio txikiagoak aurreikusten ahaliko ditu. Horrela, Hezkuntza Departamentuak erabakiko du, 2026-2027 ikasturterako onarpen prozesua arautzeko dagokion ebazpenean, ikasturte bako-

tzeko argitaratzen den Hezkuntza Laguntzako Beharrian Espezifikoa dituzten ikasleen indize negatiboari lotutako ratioen murrizketa.

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

---

## **11-25/PES-00391. Galdera, Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren zirriborroaren ibilbide instituzionalari buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren zirriborroaren ibilbide instituzionalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 7ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak egindako PES-391 galderarekin lotuta, bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak honako hau erantzuten du:

Gobernu irekiaren bidez jasotako ekarpenen txostena azaroaren 21ean (ostirala) jarri zen webgunean. Halaber, bilerak egin dira ekarpenak modu informalean barne hartu dituzten taldeekin. Horieta-ko gehienekin bilera bat egin da ekarpenei erantzuteko. Hala gertatu zen galdera hau egin zuen parlamentariarekin azaroaren 17an (astelehena).

Ekarpenetarako fasea amaituta egonik, Gobernu Kontseiluaren bilkuran lehenbailehen onetsiak izateko behar diren txostenak prestatzen ari dira gaur egun.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## 11-25/PES-00392. Galdera, 2020ko urtarrilean despopulatze-arriskuan zeuden herriei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak 2020ko urtarrilean despopulatze-arriskuan zeuden herriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 7ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak 11-25/PES-00392 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, 2020ko urtarrilean eta 2025eko urtarrilean despopulatze-arriskuan zeuden udalerriei buruz, eta Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak informazio hau ematen du horri buruz:

– 2020ko urtarrilean, zein herri zeuden despopulatze-arriskuan?

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legearen bosgarren artikuluan, haren hitzaurreri dagokionez, beren-beregi xedatzen du despopulatze-arriskuan dauden udalerririk Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez ezarritakoak izanen direla.

Arestian aipaturiko agindua betez eta "Nafarroan Despopulatze-arriskuan dauden Eremuen Mapa. Nafarroako despopulazioaren zonifikazioa eta kategorizazioa" azterlanean funtsatuta (garai hartako Toki Informazioaren eta Despopulazioaren aurkako Borrokarako Estrategiaren Atalak –Toki Administra-

zioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko Toki Entitateentzako Aholkularitza Juridikorako eta Lankidetzarako Zerbitzuari atxikitakoak– egin zuen azterlan hori), Lurralde Kohesiorako kontseilariak emandako otsailaren 15eko 8/2023 Foru Agindua eman zen, Nafarroako Foru Komunitatean despopulazio-arriskuan dauden udalerrien zerrenda onesten duena.

Aipaturiko foru aginduak hau ezartzen du: "Haren aplikazioa ezartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legea indarrean jartzen denetik aurrerako ondorioekin".

Horrenbestez, 2020an ez zegoen erregelamendu mailako baliabiderik despopulatze-arriskuan zeuden udalerririk sailkatzeko.

– 2025eko urtarrilean, zein herri zeuden despopulatze-arriskuan?

Despopulatze-arriskuan dauden udalerrien zerrenda zehazteko foru agindu berri bat onartzen ez den bitartean, Lurralde Kohesiorako kontseilariak emandako otsailaren 15eko 8/2023 Foru Aginduan –Nafarroako Foru Komunitatean despopulazio-arriskuan dauden udalerrien zerrenda onesten duenean– jasotako sailkapena aplikatu behar da. Agindu haren I. eranskinean dago jasota despopulatze-arriskuan dauden udalerrien zerrenda; hona hemen esteka: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2023/49/25>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 25ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## 11-25/PES-00393. Galdera, BAI programako graduondoa egiteko jasotako eskabideei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak BAI programako graduondoa egiteko jasotako eskabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 7ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-11-25/00393 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, BAI programaren onarpen prozesuari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Onarpen prozesua BAI Fundazioa bera ari da gauzatzen, eta hartarako eskabideak jasotzea ere BAI Fundazioari dagokio.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 25an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

## 11-25/PES-00394. Galdera, izapidetzea bertan behera uzteak ukitutako biometanizazio-proiektuei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak izapidetzea bertan behera uzteak ukitutako biometanizazio-proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 7ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ARAU ESPARRUA

Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzen duen azaroaren 7ko 14/2025 Foru Legearen bidez, xedapen gehigarri berri bat sartzen da Ingurumenean eragina duten Jarduerak Arautzen dituen Foru Legearen testuan, biometanizazio proiektuen aldi baterako berrikuspenari buruz.

Foru lege hau 2025eko azaroaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean –227. zenbakikoan– argitaratu zen, eta bertan xedatutakoari jarraikiz, 2025eko azaroaren 14an jarri zen indarrean.

Halaber, xedapen horri jarraikiz, jada hasita eta izapidetze fasean dauden administrazio espedienteak kautelaz etenen dira, salbu eta honako bi kondizio hauek betetzen badituzte:

a) Jendaurreko informazio edo erakusketa fasea amaitu bada.

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-25/PES-00394 idatzizko galdera egin zuen, izapidetzearen eteteak eragindako biometanizazio proiektuei buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak hau jakinarazten du:

b) Sektore txosten lotesle guztiak aldekoak badira eta espedientea organo substantiboaren ebazpen proposamenaren fasean badago.

Etete horretatik espresuki kanpo geratzen dira, halaber, foru lege honek indarra hartu aurretik gutxienez baldintza hauetako bat bete duten proiektuak:

– Nafarroako Gobernuak espresuki foru erkidegoaren intereseko proiektu deklaritzen dituenak.

– Ingurumen-baimen integratuaren ebazpena lortu dutenak, ingurumen-ebaluazioa eta hirigintza bateragarritasuna barne.

#### 1. GALDERARI EMANDAKO ERANTZUNA: ETETEA ERAGIN GABEKO PROIEKTUAK

14/2025 Foru Legearen ezarritako kondizioak betetzeagatik etenda geratu gabeko biometanizazio instalazioetarako proiektuak xehatzen dira jarraian, arauaren indarraldia hasi aurretik (2025eko azaroaren 14a) baitzuten ingurumen-baimen integratuaren ebazpena:

##### 1. AGR BIOGAS SA – Biogas instalazioa

Kokapena: Arroitz

Ebazpena: 1278E/2025 ingurumen-baimen integratua, 2025eko azaroaren 12koa

Baztertzeko arrazoia: 14/2025 Foru Legearen indarraldia hasi aurretik jada bazuen ingurumen-baimen integratuaren ebazpen irmoa.

##### 2. NAVARRA DE INFRAESTRUCTURAS LOCALES SA (NILSA) HUA eta lohietarako instalazio zentralizatua

Kokapena: Tuteria

Ebazpena: 1249E/2025 ingurumen-baimen integratua, 2025eko azaroaren 5koa

Baztertzeko arrazoia: 14/2025 Foru Legearen indarraldia hasi aurretik jada bazuen ingurumen-baimen integratuaren ebazpen irmoa.

##### 3. BIOMETANO SESMA SL – Biometano instalazioa

Kokapena: Sesma

Ebazpena: 1221E/2025 ingurumen-baimen integratua, urriaren 29koa

Baztertzeko arrazoia: 14/2025 Foru Legearen indarraldia hasi aurretik jada bazuen ingurumen-baimen integratuaren ebazpen irmoa.

#### 2. GALDERARI EMANDAKO ERANTZUNA: ETETEA ERAGINDAKO PROIEKTUAK

Jarraian, 14/2025 Foru Legearen arabera kautelaz etenda geratutako biometanizazio instalazioetarako proiektuak xehatzen dira, arauaren indarraldia hastean kautelaz ezarritako kondizioak ez betetzeagatik:

##### 1. CATALANA BIOGAS 1

Proiektua: biogas instalazioa

Kokapena: Artaxoa

Espedientearen hasiera data: 2024/09/25

##### 2. BIORIG ENERGY RADA-NAVARRA SLU

Proiektua: biometanizazio instalazioa

Kokapena: Arrada (Murillo el Cuende)

Espedientearen hasiera data: 2024/11/26

##### 3. RIBERCORGAS SL

Proiektua: digestio anaerobikorako eta biometanoa sortzeko instalazioa

Kokapena: Cortes

Espedientearen hasiera data: 2023/12/18

##### 4. B.POWER GEN II SLU

Proiektua: biometano eta ongarri instalazioa

Kokapena: Viana

Espedientearen hasiera data: 2025/04/04

##### 5. B.POWER GEN XI SL

Proiektua: biometano eta bioongarri instalazioa

Kokapena: Los Arcos

Espedientearen hasiera data: 2025/07/04

##### 6. KAMBIO NAVARRA I SL

Proiektua: hondakinak kudeatzeko eta gas berriztagarria ekoizteko instalazioa

Kokapena: Murillo el Cuende

Espedientearen hasiera data: 2025/08/11

##### 7. B.POWER GEN XV SLU

Proiektua: biometano eta bioongarri instalazioa

Kokapena: Cintruénigo

Espedientearen hasiera data: 2025/10/03

##### 8. CATALANA BIOGAS 6 SL

Proiektua: biometanizazio instalazioa

Kokapena: Funes

Espedientearen hasiera data: 2025/09/12

Etetearen arrazoia: 2025eko azaroaren 14an 14/2025 Foru Legea indarrean hasi zenean, proiektu horiek ez zuten betetzen etetetik kanpo geratzeko ezarritako baldintzetako bat ere; hona hemen baldintza horiek: ingurumen-baimen integratua izatea, foru interesekotzat aitortua izatea, edo ebaz-

pen proposamenaren fasean egon izana (aldeko sektore txosten lotesle guztiak izanik eta jendaurreko informazioaren fasea osatuta egonik).

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko azaroaren 25ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## **11-25/PES-00395. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako 2025-2028 Plan Estrategikoko ekintzak burutzeko epeak ezartzen dituen kronogramarik ote dagoen jakiteko**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako 2025-2028 Plan Estrategikoko ekintzak burutzeko epeak ezartzen dituen kronogramarik ote dagoen jakiteko, 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-25/PES-00395 idatzizko galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Plan Estrategikoa neurri sorta zabal batekin batera onetsi da. Hala, gaur egunean lehentasuna eman behar zaie neurri horiei Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren eta haren egitura-aren barruan.

Gai ekonomikoei dagokienez, orokorrean Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren bilakaeraren —eta, bereziki, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren bilakaeraren— araberakoa izanen da memoria hori, eta urtero egokituko da Foru Komunitatearen benetako egoerara.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo